

## **EBAZPENA, 2023KO MARTXOAREN 23KOA, UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIAN EMAN ETA UKATZEN DUTEN LAGUNTZAK AZKEN ZERRENDA ARGITARATZEARI BURUZKO AKATS BAT ZUZENZEN DUENA (2022).**

---

Honako hau egiaztatutako

### **EGITATEAK**

**Lehena.-** Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 30ean, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2022 (I. eta II. Modalitateak).

**Bigarrena.-** 2023ko otsailaren 15ean, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen,.

**Hirugarrena.-** Laguntzen behin betiko zerrenda martxoaren 16an argitaratu ondoren, egiaztatu da onuradun gisa agertzen zen Ilaski Anaut Luser andreak (22/52 PIF Kodea - II. modalitatea) dirulaguntzari uko egin ziola jada. 2023ko martxoaren 1eko idazkian, Uxue Tellería González andrea izanik (modalitate bereko 22/175 PIF Kodea) hurrengo eskatzailea puntuazioaren hurrenkeraren arabera

### **ZUZENBIDE OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Aplikatzekoak dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); UPV/EHUko Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Ebazpena, bere gobernu-taldearen funtzionamendu-esparruen eta eskumenen eskuordetzaren egiturari eta zehazteari buruzkoa (otsailaren 3ko EHAA); 14/2011 Legea, ekainaren 1ekoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzkoa; 2022ko maiatzaren 30eko Ebazpena, UPV/EHUko ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia (2022) argitaratu zuena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

**Bigarrena.-** Ikerketako Errektoreordetzari eskuordetza bidez dagokio Ebazpen hau ematea, Euskal Herriko Unibertsitateko / Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko aipatutako Ebazpenean xedatutakoaren indarrez.

**Hirugarrena,-** 39/2015 Legearen 109.2 artikulua hala ezartzen du :“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”

Hirugarren gertaeran adierazten denez, hautaketa-prozesuan akats bat gertatu da, bere ezaugarriengatik guztiz egokitzen dena aipatutako aruari, beraz hura zuzentzea egokia da.

Horregaitik guztiagaitik honako hau

## ERABAKI DUT

**Lehenengoa.-** Zuzentzea 2022ko maiatzaren 30ek argitaratutako UPV/EHUko ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdiaren inguruan sortutako akatsa, behin betiko zerrendan esleipendun gisa ager dadin, bere meritu propioekin eta azken puntuazioarekin, Uxue Tellería González andrea Ilaski Anaut Lusar andrearen orde.

**Bigarrena.-** Agindua ematea Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzeko erabaki hau.

## HELEGITEAK

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du eta beste bide hauek erabil daitezke bere kontra egiteko, baina inola ere ez aldi berean:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2023ko martxoaren 23an

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren arloko errektoreordea/Vicerrectora de Investigador